



## Guztia prest Aresoko Elutseder industriaguneko lanei ekiteko

**IRAUPENA** ▶ Hamalau hilabetez egingen ditu Sukia enpresak; ordainetan hiru lursail jasoko ditu ▶ 3



Lanen ondorioz, Elutsederko tontorra desagertu egingen da, zelai bihurtuko baitute. NAIARA GARZIA

**ALEGIA** ▶


## Musika eta umorea uztarturik gaur 'Alegi la nuit' saioan

Gaztetxearen XIX. urteurrenaren harira antolatu dute ekitaldia ▶ 4

**OIHANE IGERABIDE** ▶  
HARPA-JOLEA

«Harpa mitoan geratu den instrumentu ezezaguna da»

Adunarrak Musikenen ikasten du harpa eta uda aldera amaituko ditu ikasketak ▶ 7



Oihane Igerabide. HITZA

**IBARRA** ▶

## Emeterio Arrese auzoko lanak, aurrera doaz «erritmo osoz»

Adin guztietako herritarren topagune izate aldera ekin diete aldaketei ▶ 6

**TOLOSA** ▶

## Tolosaren 'enbaxada' Burgin, Elizpe elkartearen eskutik

Hamabost urte ditu tolosar koadrila batek herrian bertan duen etxeak ▶ 2

**ZAS**  
soinu  
ikastaroa  
Informatika musikala  
(Cubase)  
Grabaketa eta masterizazio  
profesionala.  
P.A. eta monitoreak  
Eta abar  
943 65 35 35  
[www.sointek.net](http://www.sointek.net)

i-pod  
NESTOR ARDANAZ  
ESTUDIO



## GIZARTEA ▶

JOXEMI SAIZAR

**T**olosak badu bere *enbaxada* Burgin duela hamabost urte: Elizpe elkartearen etxea, tolosar batzuk aisialdirako eta bailara ezagutzeko erosi, berritu eta prestatu zuten etxea.

Nafarroako ipar-ekialdean, Erronkari bailaran dago kokatuta Burgi, Iruñetik 77 kilometrotara —Tolosatik bi ordutara—, Esca ibaiaren ertzeetan. Berrehun eta piko biztanle ditu. Pirinioetatik gertu, mendirako eta eskirako aukera asko eskaintzen ditu. Aspaldidanik izan da Tolosatik inguru hartara joateko joera. «Oso gazte gizona, 1971ean joan ginen lehen aldiz kanpamendu bat egitera Izabara San Bernardo eskaut taldearekin eta 1978an Burgira. Geroztik inguru mitikoa izan da guretzat», dio Jose Ignacio Malkorrek. Natur inguru horrek hainbat kirola egiteko eskaintzen dituen aukera paregabeak: mendia, paseoa, eskia, igeriketa udan...

San Bernardo eskaut taldeko kide batzuk —Jose Ignacio Otermin, Jose Ignacio Malkorra eta Joselu Andueza— izan ziren inguru hartan etxe bat erosi eta prestatzearen ideia maitatzen hasi zirenak 1988an. Asmoa lagunaren artean zabaldu eta 17 bazkide elkartu ziren. Gaur egun kopuru bera mantentzen da, aldaketa pare bat izan ondoren. Erronkariko hainbat herritan etxe batzuk begiratu ondoren —ekonomia ere begiratu—, Burgin elizaren ondoan zegoen ikulu bat erosi zuten.

**Erronkari ezagutzeko**

«Etxea berritzeko herriko jendea bilatzen saiatu ginen, baina ez genuen lortu eta Tolosatik eraman behar izan genuen. 1989an teilatu eman zioten. 1992 baino lehen bukatzeko apostua zegoen tartean eta 1991ko abenduaren 29an inauguratu genuen, Almadiero jatetxean bazkari bat eginez», dio Malkorrek. Etxea dagoen kaleak —herriko plazatik oso gertu— isurbiderik ez zuenez, kaleko harri guztia altxatu behar izan zutela gogoratzen du, 40 metro beherago zegoen isurbidearekin lotzeko. Hodia sartu eta berriro estali zutenen, gaizki zegoela konturatu eta berriro altxatu behar izan omen zuten. Garai hartako milioi pezeta gastatu zuten horretan bakarrik.

Bere kokapenagatik, Elizpe izena eman zioten etxeari eta sortu zuten elkarteari. Logotipo lehiaketa bat egin zuten eta Burgiko zubia eta eliza biltzen dituen aukeratu zuten. Nafa-



Burgi herria Nafarroako ipar-ekialdean, Erronkari haranean dago kokatuta. JOXEMI SAIZAR

# Elizpe, Tolosako 'enbaxada' Burgin

Hamabost urte ditu tolosar koadrila batek han duen etxeak; inguruneak hainbat kirol egiteko aukera eskaintzen du

roako Gobernuaren egindako estatutuaren «Erronkari hobeto ezagutzea» eta «bertako lurraldea eta jendearekin harremana sustatzea» aipatzen ditu helburu gisa eta helburu horiek «dudarik gabe» bete direla diote bultzatzaileek.

Etxeak lau logela ditu, mendien izenekin: Uzturre, Txindoki, Petretxema eta Belagua. Guztira 24 litera dira. Horretaz gain sukaldia —industrialia, duela lau urte berritua—, jangela, egongela tximiniarekin, hiru komuna eta ganbara ditu. «Beharren arabera, berrikuntzak egiten ditugu, erosotasuna lortu eta hara dihoana gus-tura egon dadin», dio Malkorrek.

Tolosako beste edozein elkarte bezala funtzionatzen du Elizpek, kuota bat ordainduz —hasieratik mantendu da igo gabe—, zuzendaritza hiru urterot aldatuz, erosketak eginez... Kuotekin eta asteburua edo egun batzuk pasatzera joaten diren bazkideek eta bere lagunak ordaindukoarekin egiten zaie aurre etxearen gastuei. Herriko emakume bat ardurtzen da etxearen zainketaz. Normalean urtean bi aldiz biltzen dira bazkideak, irailen urteko asanblada egiteko Burgin bertan eta otsailen Tolosaldeko sagardotegiren batean, baina bitxikeria gisa esan behar da inoiz ez direla hamazazpiak elkartu.

**Denen etxea**

Herria txikia izanik, hasieran deskonfiantza pixka bat sortu zen Burgin hara joan zen gazte jende koadrila honekiko —deren edo askoren etxea hasi ziren deitzen, jende desberdin asko ikusten zutelako—, zertara ote zihozten pentsatzen zuten, baina berehala gainditu zen nolakoak ziren ikusitakoan

eta harreman oso ona sortu zen elkarren artean. Elizpeko bazkideek —batzuk besteak baino gehiago— herritarrekin harreman handia lortu dute urte hauetan eta hango jendea ere etorri izan da Tolosako eta inguruko herrietako jaietara edo egun batzuk pasatzera. Azkenaldian egin diren hainbat lanetan —izoztegia, karobia, txondorra, labea— Elizpe-

**SORTZAILEAK**

San Bernardo eskaut taldeko kide batzuk eta inguruko lagunak sortu zuten Elizpe elkartearen 1991ean

**ERREFERENTZIA**

Urte hauetan ehundaka tolosar izan da etxean eta Pirinioa ezagutzeko erreferentzia gunea bilakatu da



Elkartearen logotipoa. J.SAIZAR

ko bazkideren batzuk ere aritu dira laguntzen. Eta datorren urtean Nafarroako Euskararen Eguna bertan izango denez, antolaketan lagunduko dute bazkide batzuk.

Tolosarrentzat berriz, etxea erreferentzia bilakatu dela esan daiteke, eta ehundaka tolosar izan dira noizpait Burgiko etxean. «Jende gehiena udan joaten da, normala den bezala, baina Aste Santuan, zubietan eta neguan, eski garaian, ere jende asko joaten da», dio Joselu Anduezak, gaur egungo idazkariak. 1992an ospatzen hasi zen Almadieren Eguna —maiatzaren lehen asteburuan— da kanpotar gehien biltzen duen eguna eta tartean tolosar asko izaten da urtero. Antolaketan laguntzen eta almadiero gisa ateratzen ere izan dira batzuk, jendea behar zutelako. Herriko jaietan —sanpedrotan— eta Inauterietan ere bisitari ugari izaten da.

Hamabost urte beteko ditu laster Elizpe etxeak Burgin. Tolosar askori aisialdi eta oporraldi aukera paregabeak eskaini dizkio urte hauetan. Sortzaile haien seme-alaba asko hango egonaldietan hazi dira eta belaunaldi berria dator atzetik. Aurrerantzean ere tolosar askorentzat Pirinioetako txoko eder hura ezagutzeko erreferentzia gunea izango da etxea.



Elizpe etxea, Burgiko plazatik gertu dago, elizaren ondoan. J.SAIZAR

## ARESO ▶ AZPIEGITURAK

NAIARA GARZIA

Elutseder industrialdea handitzeko lanak berehala hasiko dituzte. Hori dela eta, dagoeneko obretako lehenengo txabola jarri dute. Obrek 14 hilabetetako iraupena izanen dute, eta Construcciones Sukia Eraikuntzak S.A. enpresa aukeratu du Udalak horretarako. Industrialdearen handitze hau eta gero, Elutseder inguruko paisaia dezente aldatuko da, menditontor bat zelai bihurtu behar baitute. 14 hilabete barru tontorra dagoen lekuan, 5 industri-lursail egongo dira.

Sociedad Urbanística Municipal Areso S.A. delakoari egokitu zitzaion obra hau aurrera eramateko proiektua. Aresoko Udalak %100ean enpresa honetan parte hartzen du, bertako kapital publikoa da, beraz. Sozietate honek 2006. urtean ondorengo hiru gauza hauek onartu zituen: Elutseder industrialdearen plan orokorra, urbanizatza-proiektua eta birpartzelatze-proiektua.

Obrak aurrera eramateko aurrekontua hasiera batean 1.259.666.764 pezeta ingurukoa zen (7.588.354 euro), BEZ-ari gabe. Haatik, esleipena eta gero diru kantitate hau jaistea lortu du Udalak, 1083.258.232 pezeta arte (6.525.652 euro).

Esleipen lehiaketara hiru enpresa aurkeztu ziren, eta lehen esan bezala, Construcciones SUKIA Eraikuntzak S.A. delako enpresa gipuzkoarrak aurkeztu zuen Udalarentzat proposamen interesgarriena, berak irabazi zuelarik.

# Elutseder industrialdea handitzeko lanak, hastear

## Udalak hiru lursail emango dizkio obra egingo duen enpresari, ordainetan

### Ordaintzeko modu berria

Proiektu honek badu berrikuntzarik, izan ere, obra egingo duen enpresari ez diote diruarekin ordainduko, industrialdeko lurrekin baizik. Hala, Sukia enpresak, obra egitearen ordainez 3 lursail jasoko ditu. Udalak, ohiko bidea jarraitu ordez, hau da, enpresa kontratatu eta obraren kostua diruz ordaindu ordez, nahiago izan du lurren bitartez ordaindu. Honen arabera, partzela guztiak ez dira Udalarenak izanen eta beraz, denak Udalarenak izango liratekeen kasuan hauek salduta aterako lukeen diru kopurua ez da hain altua izanen, baina aukeratutako bide honekin arriskurik ere ez dago. Alfonso Araujo Aresoko eta Sozietate Urbanistikoko sekretarioak azaldu duen bezala, «erabaki honen helburua herriarentzat ahalik eta arrisku gutxien pairatzea izan da, izan ere, enpresari dirutza ordaindu ondoren, eta lursail guztiak Udalak mantendu arren, hauek saltzea lortuko ez bage-nu?».

Honetaz gain, abuztuan lurra lehiaketa publikora atera ondoren, Gipuzkoako enpresa

bati lehenengo lur-saila saldu zitzaion, P1A delakoa. Honen bitartez SENA S.A.k 11.895 mko partzela eskuratu zuen, 1.575.000 euroren truke. Hiru partzela Sukia enpresak jasoko ditu, eta gelditzen diren beste biak Udalarentzat izanen dira, eta ziurrenik, «zatika» salduko ditu. Sei lursail hauek helburu industrialak izanen dituzte, baina industrialguneetan ohikoa den bezala, beste lursail bat zerbitzuetarako erabiliko dute: denda, taberna, jate-txe... bezala (PD1).

Proiektu hau aurrera eramateko dirulaguntzei dagokienez, orokorrean 93.000.000 pezeta-takoa izango da jasoko duten kopurua. Kopuru hauetatik guztietatik haratago joanez gero, idazkariak azaldu duen bezala, proiektuaren kostua kontutan hartzen badugu (50.000.000 pezeta), Udalak 500.000.000 pezeta inguruko irabaziak izanen ditu. Honetaz gain, Aresoko idazkariak argi utzi nahi izan duen bezala, «ez dugu proiektuaren helburu bikoitza ahaztu behar: batetik ekonomikoa, eta bestetik soziala, bertako jendeari lana eskaintzea baita helburu nagusienetarikoa».



Elutsederren obrak hastear daude. N. GARZIA

### hilberriak ▶

#### Celestina Aldabe Irigoien

andrea

—Golan bego—

«Zure buruak askotan ez ezagutu arren  
- zure bihotzak beti maite gintuen  
- eta hori ajola zaigu gehien.  
- Gogoan dut 'armona, zure iloba da' esan  
- eta aurpegia nola alaitzen zitzaion.  
- Orain, zure maitasunak piztu dezala  
- izar bat gauen eta deskantsu ezazu  
- betiko pakean.»

Zure ilobak

ZIZURKILEN, 2006ko Abenduaren 28an



### hilberriak ▶

#### Felipe Iglesias Arevalo

Jauna

Abenduaren 27an hil zen, 47 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—



Bere anai-arrebak: Juli eta Angel Pastor, Pili eta Guillermo Goikoetxea, Angel, Juan Carlos eta M. Carmen Gomez; ilobak: Xabier eta Mertzxe, Susana eta Cesar, Itziar eta Abel, Aitor eta Pili, Mencia eta Justo, Maider, Iñigo eta Igor; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.  
Haren animaren alde otoituz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitzetzela GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, TOLOSAKO ANDRE MARIA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Gorriti plaza, 4, 1-D

oharra ▶ Gorpu bella Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan dago, osteguna goizeko 11:00ak arte.

TOLOSAN, 2006eko Abenduaren 28an

### hilberriak ▶

#### Juana Egiguren Goikoetxea

andrea

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
Hitzako langileok  
bat egiten dugu une hauetan  
familiarren saminarekin

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza

TOLOSA, 2006ko Abenduaren 28a

### hilberriak ▶

#### Juana Egiguren Goikoetxea

ANDREA

(Patxi Otamendi 'Beloki Txiki'-ren alarguna)



HERENEGUN hil zen, 75 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

Bere seme-alabak: Patxi, Migel eta Irene Salaberria, Martxelo, Mila eta Josu Reguero; bilobak: Amaia, Joana eta Irati; ilobak: Luis Mari Merino eta Carmina Leon, Juani Merino eta Jose Miguel Murugarren; laguna: Jazinto Ezeiza; zaitzaileak: Luci Baez eta Lorena Terrazas; lehengusuak eta gainerako ahaideek.

EGUN HANDIRA ARTE

Haren animaren alde otoituz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitzetzela GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN FRANTZISKOKO parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Araba etorbidea 3, 4-D.

oharra ▶ gorpu bella Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan dago, osteguna goizeko 10:30ak arte.

TOLOSA, 2006eko Abenduaren 28an

## AMEZKETA ▶

## Bihar autodeterminazioaren aldeko jai berezia egingo dute

Amezketan egun berezia antolatu dute biharko. 18:00etan autodeterminazioaren inguruko hitzaldia izango da balioanitzeko gelan. Gero, bertso afaria izango dute 20:30ean. Bertso afaria Zazpi iturri elkartean egingo dute, toki faltagatik kopuru mugatua izango delarik, 50 laguntzat. Txartelak, herriko tabernetan daude salgai, langileentzat 17 eurotan eta ikasleentzat 14an. Azkenik, *Euskal gazteriarren aurkako erasorik ez*/lelopean kontzertuak izango dira. Errugabe eta Eko4 izango dira. Egunean biltzen den dirua Aritz Lopez eta Eneko Elolaren fiantzak ordaintzen laguntzeko izango da.

## TOLOSA ▶

## Ostiral meheko tanborradarako bilera

2007. urtean ostiral meheko emakumez osatutako danborrada lehen aldiz atera zela 25 urte beteko dira. Horren harira, noizbait danborrada horretan parte hartu izan duten emakume guztiak bihar egingo den bilerara gonbidatu dituzte antolatzaileek. Asmoa, aurten berriro ateratzea izango litzateke. Dena dela, Tolosako Kultur Etxean egingo duten bileran, 19:30ean, argituko dituzte zalantzak, nahiz informazioa.

## TOLOSA ▶

## Klaseen arteko borrokei buruzko filma

*How green was my valley!* (*Bai berdea zela nire harana!*), John Ford ingelesaren filma izango da gaur Leidorren, 21:30ean: meatzarien herri batean Norman sendia bizi da, harro, guztiak mezariak direlako eta tradizioak mantentzen dituztelako. Langileei soldata jaistean liskarra sortuko da aitaren eta semeen artean. Filma klaseen arteko borrokoz eta berdintasuna bilatzeaz mintzo da, John Ford zuzendariak bere pelikula askotan egin ohi duen moduan. Errealismoa ere agerian geratuko da. Melodrama paregabea, familiako balioei gorazarre egiten diena.

## BELAUNTZA ▶

## Herri kirolak haurrentzat, pilotalekuan

Uli Mankomunitatean dauden herrietako ludotekak —Gaztelu, Leaburu, Lizartza eta Orexa— Belauntzan elkartuko dira, 10:30etik aurrera, Kulki taldearen laguntzaz herri kirol jolas ezberdinetan parte hartzeko. Batzuk jada eskolatik elkar ezagutzen badute ere, oso garrantzizkoa da herri hauetako haurrak harremanetan egotea, eta ekimen honekin, gainera, euskal herri kirolen mundua hobeto ezagutzeko aukera izango dute. Guztia Belauntzako pilotalekuan egingo da.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## IBARRA ▶

## Bideo emanaldia, jolas-parkea eta bizikleta ginkana

Gaur Ibarako Kultur Etxean bideo emanaldia 11:30ean izango da. 17:00etatik 18:30era, berriz, San Bartolome plazan 11 eta 17 urte bitartekoentzako bizikleta gainerako ginkana izango da. Honetan parte hartzeko kaskoa eraman beharko dute. Bihar, berriz, haurrentzako jolas-parkea izango da Belabietan, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30era.

## AMEZKETA ▶

## Maite Gurrutxaga amezketarraren margolanak

Amezketako Txindoki tabernetan Maite Gurrutxaga amezketarraren margolanak izango dira ikusgai, nahiz salgai. Urtarrilaren 7a bitarte egongo dira bertan, mihise gainera egindako lanak.

## IKAZTEGIETA ▶

## Herrigintza elkarteko lehen Mus Txapelketa

Herrigintza elkarteko I. Mus Txapelketa antolatu dute etzarako. 16:00etan hasiko da elkartean bertan. Parte hartu ahal izateko bikoteko kide batek gutxienez Ikaztegieta-koa izan beharra du, edo elkarteko bazkide. 14 euro inguru balio du parte hartzeak.

## ALEGIA ▶ GAZTETXEA

## ‘Alegi la nuit’: gaur, musika eta umorea

Gaztetxearen XIX. urteurrenaren baitan, ekitaldiak izango dira gauean

Iaz *Alegi la nuit*-ek arrakasta izan zuen. N. URBIZU

## NEREA URBIZU

Gaur, Alegiko Gaztetxearen XIX. urteurrena dela eta, ekitaldi berezi bat izango da bertan. Iazko *Alegi la nuit* saioa errepikatuko dute, elementu berriak ere gehituz.

20:30ak aldera jaia hasiko da, «olerki irudi ikuskizuna» izango baita: *Aparkalekuko felizidada* saioa Gorka Setienek eta Nagore Lozanok bideratuko dute. Ondoren, gaztain erre-ak eta bestelakoak, gehi zahagi sagardoa izango da, ikusleak indarberritzeko.

Segidan, hiru ikuskizun ezberdin izango dira *Alegi la nuit*-en baitan: Zezilio eta Emilio bikoteak irekiko du gaueko saioa. Hauek, musika egingo dute, eta «bereziki gau honetarako 3-4 kanta egin dituzte»,

argitu zuen antolatzaileetako batek. Bikote honen ondoren, *Aluaren algara & the pototas* izango da. Boskote hau gaurko elkartu egin dira, berez bi baitira, eta moztarok ere erabiltzen dituzte. «Umorezkoa da, barre egiteko: kritika soziala egiten dute, baina umorearekin».

Azkenik, *Water-parties*, «aguafiestas» izango litzatekeena, musika jartzeaz arduratuko da. Musika elektronikoa egiten duen bikotea da, eta neska batek abestu egiten du. Saio bakoitzak 45 bat minutu iraungo ditu. Baina honen ondoren, egongo da sorpresaren bat edo beste: «musika gehiago, ziur». Beraz, umorea, musika eta antzerki kutsuko ekitaldia gaur, Gaztetxearen urteurrena ospatzeko.

hitza

Harpidedunen txokoa



HITZAko harpidedunen artean

Jokoaren

10 ale zozketatuko ditugu!

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara: 943 65 56 95

“TOLOSA JOKOAN”  
Tribial jolasa CD-an750 galdera-erantzun Tolosari buruz  
1 eta 4 jokalarien artean jolasteko  
(adin guztietarako)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

**KIROLAK ▶**
**ESTI EZEIZA**

Ohikoa den bezala, aurten ere, batzuk korrika emango diote amaiera urteari. Izan ere, eskualdeko hainbat herritan krosak antolatzen dituzte egun horretarako.

Samaniego-Orixe kirol batzordeak antolatuta, San Silvestre eguneko krosa izango da hilaren 31n. 16:00etan Zerkausitik abiatuta, adinaren arabera distantzia ezberdina korritu beharko dute parte-hartzaileek.

Izen-ematea Aralar kirolakeko dendetan egin ahal izango dute interesatuek, proba hasi baino ordu erdi lehenago arte. Helduek bost euro ordaindu beharko dituzte, eta hurreko doakoa izango dute parte-hartzea. Joan den urtean 300 lagunek gauzatu zuten ibilbidea, eta oraingoan, zenbaki hau handitzea espero dute antolatzailuek.

Lortutako irabaziekin Oriaguabas Gobernu Kanpoko Erakundeari lagunduko diote. Erakunde honek herri kolonbiar baten alde lan egiten du, eta egun horretan bertan, ordezkarietako batzuk Zerkausiko beirazko egituraren egongo dira Kolonbiako herri horretako produktuen eta beren lanaren erakusketa bat egiteko.

Parte-hartzaileek, garaikurrak, dominak eta Eguberrietako oroigarriak eskuratzeko aukera izango dute. Bestalde, helduetan izena ematen duten guztiei kamiseta eta zira bana emango zaie. Haurrentzat berri, karpeta eta koadernoak

# Askok, korri eginez esango diote agur aurtengo urteari

Hilaren 31n IX. Elkatasun Krosa egingo dute Tolosan, eta XXIII. Urte Zaharreko Lasterketa Villabonan eta Zizurkilen



Joan den urteetan bezala, aurten ere Elkatasun Krosa egingo dute Tolosan zehar. I. TERRADILLOS

izango dira. Sari hauen guztiez gain, zozketa bat ere egingo dute lasterkarien artean, eta hemen, berriz, hainbat afari eta kirol materiala banatuko dituzte.

Lasterketaz gain, bestelako ekintza bereziak ere antolatu dituzte egun horretarako. 17:00etan, esaterako, Odei-Truk Samaniego ikastetxeko abesbatzaren emanaldia izango da.

**Urte zaharreko lasterketa**

23. aldiz, Zumbeltz eta Urkamendi elkarteek antolatuta, Villabona eta Zizurkil igaroko dituen urte zaharreko krosa izango da hil honetako azken egunean. Honenbestez, 16:00etatik aurrera, eta lasterketak irauten duen bitartean bi herrien artean dagoen Pasuseña itxirik egongo da auto, kamioi eta autobusentzat.

Krosean edonork hartu ahal izango du parte, eta izen-ematea egunean bertan egin beharko dute. Helduen ibilbidea, alebin, infantil eta kadeteekin batera, Villabona eta Zizurkilgo kaleetatik barrena izango da. Aldiz, benjaminak Zumbeltz elkarte inguruan antolatutako ibilbide labur batean ibiliko dira. Irteera ordua, benjamin eta txikiagoentzat 16:00etan izango da, eta gainontzekoentzat, 16:30ean.

Garaikurrak kategoria bakoitzeko lehenengo gizon eta emakumeek eraman ahal izango dituzte. Bestalde, 10 afariren zozketa egingo dute parte-hartzaileen artean.

**TOLOSA ▶ KULTURA**

## ‘1.200 kilometro’ euskaraz izango da bihar

**E. EZEIZA**

Irailaren 22ko estrenaldiko arrakastaren ondoren berriro ere ikusgai da *1.200 kilometro* dokumentala. Saioa bihar, 20:30ean izango da, Leidorren. Aurrekoan gaztelaniazko ber-

tsoia eskaini bazuten ere, bihar euskaraz izango da. Sarrerak 2 euro balio du eta lehiatilan edo Kultur Etxean erosi ahal dira.

Duela urtebete Tangerretik autobus baten azpian etorri ziren bi gazte marokoarren istorioa kontatzen du lan honek.

**iragarki laburrak ▶**
**SALGAI**

**Autoa.** Ford Scort 1.800 TD. SS-BC. Telefonoa: 943 65 52 88.

**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1.995. urtekoa. 153.000 km liburuarekin. 18ko llantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Telefonoa: 943 65 41 43.

**LANA**

**Harreragileak.** Erakundeetarako harreragileak behar dira. Telefono zenbakia: 943 44 48 66.

**Gidariak.** Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Interesatuek deitu 943 44 48 66 telefono zenbakira.

**KUTXAREN JAKINARAZPENA**  
**TOLOSA SAN FRANTZISKO BULEGOARI BURUZ**

Aditza eman behar degu gure bezeroei, bulego honen beregokitze-lanetan ari garen bitartean, **indartu egin dugula bezeroenganako arreta-zerbitzua Gorosabel-10 eta Korreo-30,eko gure beste bulegoetan.**

Era berean, jakinarazten dizuegu, **urtarrilaren 2 eta 3an, Gorosabelgo bulegoa zabalik egongo dela arratsaldez 16:30etik 19:00ak bitarte.**

Sentitzen dugu eragindako eragozpenengatik.

Baina zuz gude aurki ahal izango zaituztegu berriro agurtu gure **San Frantzisko** bulegoan.

**kutxa**

**KIMETZ**  
GAZTE ARROPA

**Nagusia, 23**  
**• TOLOSA •**  
**Tel.: 943 67 38 62**

**papertxulo**

**Zorionak!**

- Opari artikulua
- Peper-gauzak
- Planoen kopiak
- Liburuak

Kale berria, 36 behea  
Villabona  
Tel.: 943 69 37 84  
[papertxulo@hotmail.com](mailto:papertxulo@hotmail.com)

## IBARRA ▶ AZPIEGITURAK

MADDI SOROA

Lanak direla eta, pasa den apiriletik hesiz inguratuta dago Ibarako Emeterio Arrese auzoa. Egingo diren hobekuntza lanen artean, frontoia estali, futbol zelaiari lurra aldatu, haur parkea berritu eta helduentzako parkea egingo dituzte, besteak beste. Aurreikusit dutenaren arabera, 2007ko apirilera amaiturik egotea espero dute.

Uda aurretik ekin zieten lan-gileek Emeterio Arrese auzoko lanei eta harrezkero hesiz inguratuta dago auzoa. Merezit izango du itxarroteak, ordea, guztiz itxuraberriturik geratuko baita.

Frontoiari egurrezko estruktura ezarriko zaio eta desegindako asfaltua izango du lurrean. Garrantzitsuena, ordea, estali egingo dela da, era berean, argiztapena izango duelarik. Futbol zelaiari dagokionez, zoladura jarriko dituzte lurrean. Gogoratu, azpian garajeak izango dituela zelaiak eta lanak aprobetxatuz, iragazgaitz arazoak konpondu direla, izan ere, euriaren ondorioz ura sartzen zen garajeetan.

Lehen harmailak zeuden tokian beste harmaila berri bat egingo dute, beroagoa, izan ere, egurrezko akabera izango du. Harmailak inklinazio gutxiago izango dute eta zabala goa izango da. Honen alboan, bi pisuko eraikin berri bat sortuko dute. Oraindik ez dago zehaztua zein erabilpen izango duen, baina erabilanitz izango dela aurreikusia dago, hala nola, neska eta mutilentzako aldagelak, komunak, materiala gordetzeko gela.

Orain arte frontoiaren eta futbol zelaiaren artean zegoen aterpea ez da berriro ere egingo, era horretan, ahalik eta espazio librerik handiena edukiko

# Emeterio Arreseko lanak aurrera doaz «erritmo biziz»

Adin guztietako herritarren topagune izateko helburuz, frontoia, futbol zelaiak eta haur parkea berrituko dituzte; helduentzako parkea ere egingo dute



Aldaketa nagusien artean frontoia estali egingo dute eta argiztapena izango du. MADDI SOROA



Lanak amaitutakoan Emeterio Arreseko izango duen itxura isladatzen duen planoak. HITZA

## DATUAK ▶

**Lanen hasiera.** 2006ko apirila inguruan hasi ziren lanean.

**Lanen amaiera.** 2007ko apirilera amaiturik egotea aurreikusten da.

**Zer egingo da.** Futbol zelaiak eta haur parkea berritu, frontoia berritu eta estali, zerbitzuak eraikina sortu eta helduentzako parkea egin.

**Helburua.** Emeterio Arrese adin guztietako herritarren topaleku izatea.

nahi delako etorkizunean izan ditzakeen erabilpen ezberdinetarako, herriko festak, txoznagunea, ikuskizunak...

Modu honetan, Emeterio Arreseko ahalik eta itxurarik uniformeena izatea bilatu dute, oztupo arkitektonikorik gabe eta guztiz asfaltatua. Beraz, dena maila berean utziko dute.

San Inaziotik plazara bideko pasealekua berdegune bilakatu da, jokorako mahaia jarriko direlarik bertan. San Inazio alboko eremuan, bola-jokoa eta haurrentzako parkea mantenduko dituzte eta berrikuntza bezala helduentzako parkea egingo dute.

Emeterio Arreseko lanen helburua, adin guztietako herritarrek elkartzea da; horregatik landu dituzte eremu ezberdinak.

## Helduentzako parkea gorputzeko giharreak lantzeko

Emeterio Arrese auzoa itxura berriturik etorriko da 2007ko apirilean. Frontoia, futbol zelaiak, haur parkea edota ikuskitararako harmaila izango dira berrikuntzetako batzuk. Guztiz berria den elementua ere ekarriko du, ordea, helduentzako parkea, hain zuzen ere.

Helduentzako parkeak haurrentzako parkearen kontzeptua du, baina, helduentzako ariketak burutzeko sortua da. Helduek, ariketa fisikoak egiteko aparailu ezberdinak izango dituzte, modu horretan, beso eta hankak trebatu edota gorputzeko beste hainbat gihar lantzeko.

Gorputza lantzeko aparatuen artean denetik aurkituko du bertaraten denak, besteak beste, gurpil batzuk giratuz eskuak landu, aulki batean eserita hankak bizikleta eran mugitu, eskilerak eta aldapatxoak dituen ibilbidean joan eta etorri dola luzamenduak egin ahal izango ditu.

Geroz eta gehiago dira horrelako parkeak jartzen dituzten herriak. Tolosaldean, Villabona izan zen horietan lehena. Ibarako Udalak apustua egin du horrelako proiektu berritzailearen alde. Denborak esango du zer nolako harrera eta erabilera ematen dieten Ibarako helduek. ◀



Villabonako helduentzako parkean besoak lantzeko dagoen tresna. IMANOL GARCIA

OIHANE IGERABIDE ▶ HARPA-JOLEA

# «Harpa ezezaguna da, mitoan geratu da»

Adunako neska Musikenen dago harpa ikasten eta ekainean bukatuko ditu ikasketak guztiak; honela, Musikeneko harpako ikasketak dituen lehenengo euskalduna izango da



HITZA

NEREA URBIZU

Adunako 24 urteko harpalaria dugu Oihane Igerabide. Hurrengo ekaina aldera lortuko du harpako goi mailako ikasketen titulua Musikenen: hain zuzen, LOGSEko goi mailako ikasketetan lehenengo harpalari euskalduna izango da.

## **Nolakoa da zure asteko egun arrunt bat?**

Harpa ikasten dut goizero. Arratsaldean entsegua daukat beste harpa-jole batekin: hau kamera musikako ikasgairako egiten dugu. Azkenik, orkestra egitaraua izeneko ikasgaia dugu, eta hori egiten dut. Klaseak bi astetik behin jasotzen ditut, irakasleen ordutegi eta egutegiaren arabera, ez baitute klase Donostian bakarrik ematen.

## **Zer ikasgai duzu aukeran ikasketeko?**

OIHANE IGERABIDE ▶ HARPA-JOLEA

«Frantzia harpa hedatuagoa dago, eta Musikeneko irakaslea oso ona da: horregatik datoz honera ikastera»

Batzuk derrigorrezkoak dira: harpa bera, orkestra egitaraua, orkestra bera, korua eta partituren moldaketak. Aukerazkoak, berriz, gorputz jarrera, Euskal Herriko musika tresnak, perkusio tresnak edo Alexander teknika, besteen artean.

## **Zein izan dira zure irakasleak?**

Oiartzunen hasi nintzen ikasten, 8 urte nituenean. Orduan Adunatik hara joaten nintzen Iñaki Gurrutxagarekin ikastera. Gero, Donostiako goi mailako Franzisko Eskudero kon-

«Interpretazioaren adarra aukeratu nuen eta horretaz bizi nahi dut: kontzertuak eskainiz eta harpa joz»

terbatoriora joan nintzen erdi mailako ikasketak han bukatzeko. Han Marimi Azpiazurekin ikasi nuen. Goi mailako lau ikasturteak Musikenen Frederique Cambreling-ekin hasi nintzen, han dagoen bakarrekin, eta harekin bukatuko ditut ikasketak.

## **Zer moduzkoa da azken hau?**

Oso ona da Frederique Cambreling: bakarlarria da, mundu mailan ezaguna. Musika garai-kidean dago espezializatua, eta klaseak emateko orduan ere oso ona da. Frantzesia da,

eta hona etorri arte ez zuen beste hizkuntzatan hitz egiten. Nigatik gaztelera ikasi zuen. Pena du, audioak edo masterclass-ak egin dituen oso jende gutxi joan izan delako, eta uste zuen harrera hobea izango zuela. Kontua da ez dela ezaguna hemen, eta gainera, ez dago ia harpa jotzen duen inor. Klasea baten bat joatea ere onartzen du, eta gustuko du hori.

## **Zein da zure asmoa harparekin?**

Pedagogiaren adarra eta interpretatzailearena daude aukeratzeko. Nik interpretatzailearena aukeratu nuen: horretaz bizi nahi dut, kontzertuak eskainiz eta harpa joz. Talderen batean jotzea gustatuko litzaidake, eta geure musika sortzea, baina azken hau zaila ikusten dut.

## **Ez al da arriskatua? Alegia, irakasle izateko ateak nolabait itxi egin dituzula dirudi...**

Ez dut uste... Ondo jotzen duenak beti izango du gero pedagogia ikastaro edo ikasketak egiteko aukera eta harpa jotzen ona izango da. Pedagogia egin duen batek, aldiz, ez du harpa horren ondo menperatuko. Beraz, irakasle izateko aukerak beti izango ditut. Oposaketak egiteko garaian ere, azken batean berdin du zein karrera egin duzun.

## **Beraz, irakasle izateko prest egongo zinateke?**

Bai... Baina ikara ematen dit, batez ere maila altuetan daudenekin. Pentsa, neure buruarerakin askotan zer egin ez dakit... Ba besteekin okerrago...

## **Zenbat zaudete harpa ikasten Musikenen?**

Aurten 6 gaude. Berez 8 egon daitezke, ikasturte bakoitzeko 2, hain zuzen. Ni azkeneko mailan nago orain. Euskaldun bakarra naiz: beste guztiak frantziarrak dira.

## **Zergatik frantziarrak?**

Han harpak indar gehiaxeago du, ikasle gehiago daude. Gainera, Musikenen dagoen harpako irakaslea oso ona da mundu mailan. Horregatik, frantziarrek berarekin ikasi nahi dute. Ez da berdina gertatzen espainiarrekin: hurbilen dutenarekin konformatu egiten dira. Egia esan, Kataluniako irakaslea ere ona da, eta Madriloak, nahiz eta horren ona ez izan, prestigioa, ospea dauka. Mugitzen denak, aldiz, Amerikako Estatu Batuetara,

## DI-DA BATEAN ▶

**Kolore bat?** Urdina.

**Herri bat?** Aduna.

**Urtaro bat?** Udaberria.

**Irakurtzeko genero bat?**

Nobela.

**Liburu bat?** *Ovidioren metamorfosiak*.

**Harpa-jole bat?** Nire irakaslea.

**Aduna?** Jaio nintzen herria.

Donostian herriko soinua faltan somatzen dut.

**Harpa zer da?** Nire burua

ezagutzeko bidea, eta aldi berean kartzela ere bai.

**Filmaren bat?** Amerikarra

ez den edozein!

edo Frantziara joaten dira. Nik bi euskaldun ezagutzen ditut: bat Amerikako Estatu Batuetara joan da, eta bestea, berriz, Ingalaterrara.

## **Zergatik ez dago harpa hedatua? Ez da polita ez delako...**

Ez, polita oso polita da. Bereziki berezia delako. Baina jendeak ez du ezagutzen asko, ez daki ia zer den: zaila da teknikoki jotzeko, ez da ezaguna, ez da erraza ere kalean edo irratan entzutea, ikusten ere ez da erraza, prezio altua dauka... Nire teoria honakoa da: jendeak mito bezala ezagutzen du harpa. Harpa mito bezala geratu da, benetako musika tresna edo ikas daitekeena dela piska bat alde batera utzi. Karrantaren bukaeran ikerketa lan bat egin behar da, eta ni harparen sinbolismoaz ariko naiz.

## **Beste tresnaren bat ikasiko al zenuke?**

Bai, aukeran biola. Soinuak eta notak mantendu egin daitezke eta luzeak egin ditzakezu arkoarekin, harparekin ez bezala. Melodiak, gainera, gehiago lantzen dira. Baina beste erritimo eta helburu batekin, lasaia go eta ondo pasatzeko.

## **Eta Musikenetik nora? Zeintzuk dira zure proiektuak?**

Nik ikasten jarraitu nahi dut. Antzinako musikan, zahazki Erdi Aroko musikan espezializatua nahi nuke. Kanpoan ikastea ez dakit, Italian egon nintzen Erasmus bekari esker eta oso esperientzia ona izan zen, batez ere pertsonala. Baina orain ez dakit, kostatuko litzaidake, hemen oso irakasle ona dudalako eta badakit zaila izango zaidala hobea lortzea, edo gutxienez konformatzea. Beti gutxi irudituko litzaidake.

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Alegia.** Gaztetxearen XIX. urteurrena dela eta, zahagi sagardoa eta ondoren *Alegi la nuit* saio berezia antolatuta dituzte, 21:00etan.  
**Berrobi.** Podologoaren bisita izango da Berrobin 15:30etik aurrera.  
**Ibarra.** Bideo emanaldia, 11:30ean Kultur Etxean.  
**Ibarra.** Gazteak bigarren eskuko gauzen azoka jarri du marxan. Azoka bihar arte egongo da zabalik 16:00etatik 20:30era.  
**Tolosa.** Laskorain Ikastolako antolatuta, Merkatu Txikia egongo da Kultur Etxean urtarilaren 7a arte.

**ERAKUSKETAK**

**Amezketeta.** Urtarilaren 7a arte ikusgai eta salgai izango dira Maite Gurrubagaren margolanak, tabernan.  
**Alitza.** Edurne Suduperen margolanak ikusgai izango dira hilaren 31ra arte, udaleko beheko solairuan, 17:00etatik 20:00etara.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
**11:00-14:00.** Tolosaldeko ahotza magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
**18:00-20:00.** Tolosaldeko ahotza (errepikapena).  
**20:00-21:00.** Irauli uhinak.  
**21:00-23:00.** Bide okerretik.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# «Besarkada batez, Joxemari»

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ HITZAK** Joxemari Iturralde idazle tolosarraren 'Hyde Park-eko hizlaria' liburua zozketatu du; idazleak liburuak sinatu ditu



Joxemari Iturralde, atzo goizean, HITZAK zozketatu dituen liburuak sinatzen. J. MUJIKA

**ERREDAKZIOA**

**B**esarkada batez, Joxemari». Banan bana, 20 bider sinatu ditu Iturralde tolosarrak HITZAK harpidetuen artean zozketatu dituen bere azken eleberriak. Hala, *Hyde Park-eko hizlaria* liburua sinadura eta guzti jasoko dute irabazleek. Hauek dira saritua: Maritxu Bernabe, Josune Zubeldia, Xanti Ulizar, Martin Iturralde, Olatz Etxeberria, Izaskun Zarategi, Idoia Olano, Juan Mari Ezeiza, Lorenzo Goikoetxeaundia, Manoli Artega, Jaione Iurrumendi, Juani Zeberrio, Andres Arregi, Antton Gabellanes, M. Arantxa Beñaren, Margari Etxetxikia, Milagros Ipetegui, Ana Belen Urbieto, Jokina Zubillaga eta Tere Larraite.

**AGURRAK ▶**



lurpean, eta beste inon baino lehenago egin dute Amezketa aurtengo sagardo denboraldi berriaren inaugurazioa.



**ekar** ekar ezagutzaren dugulako

www.ekar.com

kulturaren plazerra

ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA